

Euskararen **4** sentsibilizaziorako pilula:


euskara hobetzeko aholkuak, euskarari buruzko
berriak, euskal kultura eta askoz gehiago!



1

“Odolkiak ordainetan” nondik dator?

Norberari gertatu edo egindakoa, norberak egindakoagatik izan dela adierazteko erabiltzen da.



Jatorriz, baseritik datorren esapidea da. Familia batek txerria hil eta auzokideei ematen zieten zati bat, ondoren mesedea bueltan jasoko zuten hauek, auzokideek ere txerria hiltzean. ‘Ordaina’ esaten zaio horri.



“Muinak ordainetan” eta “esku-muinak” esapideak ere hortik datoz.

Umorea

DE RETUM NATURA

@zaldieroa

SABINO





Irundik Baionara egingo dute 23. Korrika, martxoaren 14tik 24ra



'Harro herri' da datorren aldirako aukeratu duten leloa. Baina zergatik?


«Harrotasunez aldarrikatu nahi dugu bagarela eta izango garela, inori baimenik eskatu barik, epaiketa politikoen gainetik, hizkuntzak elkar ulertzeko sortu zirelako, komunitateak eraikitzeko. Erabakia hartua dugu: izan izango gara, euskaraz izango gara, herriaren erabakitetasunagatik izango gara».

Azterketak Euskaraz izango da aurtengo omendua. Horrela, Ipar Euskal Herriko gazte horiek baxoa eta brebeta euskaraz pasatu ahal izateko egindako borroka aitortu asmo dute.

4

Joxean Artzeren poema

*Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretik.*





Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus